

DEIALDIA:
GETXO MODA 2017 DISEINATZAILE BERRIEN LEHIAKETAREN 14.
EDIZIOAREN DEIALDIA

Helburua:

Moda diseinatzaile berrien lana zabaltzea eta sustatzea, emakumeentzako eta gizonentzako bildumak egiten dituztenak.

Parte har dezaketenak:

Diseinatzaile berriak, edozein adinetakoak.

Gaiak eta bildumak:

Lehiaketara aurkezten diren bildumen gaia librea da. Diseinatzaile bakoitzak bilduma original bat edo batzuk aurkeztu ahalko ditu (bilduma hori beste lehiaketa batzuetan aurkeztutakoa izan daiteke); bilduma bakoitza **4 bozetokoa** izango da.

Faseak:

• **1. Fasea: Bozetoak aurkeztea eta bilduma finalistak aukeratzea:**

Lehiaketara aurkezten den **bilduma bakoitzaren 4 bozeto** aurkeztu beharko dira, eta bozetoen arabera, bildumen lehenengo hautaketa bat egingo da.

Bildumak baloratzeko, haietako bakoitzak dokumentazio eta informazio hauek eduki behar ditu:

- Bildumaren izena eta inspirazio-iturria
- DIN A4an marraztutako lau bozetoak
- Bilduma egiteko erabilitako materialaren eta diseinuen deskribapen teknikoa
- Egilearen curriculum vitae
- Egilearen NANaren fotokopia
- Egilearen harremanetarako emaila
- Egilearen harremanetarako telefonoa
- Epaimahaiarentzat garrantzitsua izan daitekeen beste edozein datu.

Bildumen bozetoak aurkezteko azken eguna:
2017ko otsailaren 24a, ostirala

(Bilduma finalistak zeintzuk diren 2017ko martxoaren 2a baino lehen jakinaraziko da parte-hartzaile bakoitzak emandako emailera jakinarazpen bat bidaliz)

• **2. Fasea: Bilduma finalistak aurkeztea**

Hautatutako bilduma finalistak **Diseinatzaile Berrien 14. Pasarelan** aurkeztuko dira.

Pasarelan aurkezteko, bilduma finalistak **36/38 neurriko emakumeentzat** egin behar dira eta **40/42 neurriko gizonentzat**. Bilduma finalistak aurkezpenean diseinuen estilismoarekin datozen moda-osagarriak eta zapatak barne egongo dira (pasarelaren ezaugarriak kontuan hartuta, zapatek 12 cm-ko altuera izango dute, gehienez ere).

Diseinatzaile Berrien 14. Pasarelako bilduma finalistak aurkeztu behar duen taldea (ile-apaintzaileak, makillatzaileak, modeloak) antolakuntzak, hau da, Getxo Enpresak jarriko du, baita eszenografia ere.

**Bilduma finalistak aurkezteko azken eguna:
2017ko apirilaren 28a, ostirala**

**Desfilea Getxoko 2017ko Modaren Astean zehar egingo da.
Getxo Moda 32**

Epaimahaia:

Modaren eta estilismoaren, diseinuaren eta kulturaren alorrean **ospe ona duten profesionalak** osatuko dute epaimahaia eta horiek aurkeztutako bozetoen eta bildumen **sormena eta originaltasuna, koherentzia eta bideragarritasuna, eta kalitatea eta akabera** baloratuko dituzte. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Epaimahaiak aurkeztutako bildumak eta bozetoak baloratuko ditu, hurrenez hurren; horrez gain, bilduma irabazlea aukeratuko du eta horren egileak **GETXO GALANTA BEKA** jasoko du.

Saria:

"GETXO GALANTA" BEKAK hauxe hartzen du barnean:

- **Prestakuntza plan** pertsonalizatua, **ospe oneko euskal diseinatzaile** baten eskutik.
- **Diseinatzailea eta bere bilduma** hedabideetan sustatzea.
- Saritutako bildumaren **argazki book-a** egitea.
- Getxo Modaren 33. Edizioan egingo diren desfileetan parte hartzea.
- **Zabalkita panpinaren diseinua egitea, Zabalketa GKEarena, 2018ko Getxo Modan –33. edizioan– aurkeztuko dena.**

Lehiaketa irabazten duen bildumaren diseinatzaileak onartu egingo du Getxo Enpresa entitate antolatzaileak sariari hedapen zabala ematea, eta hedabideek eskatutako **elkarrizketa eta erreportaje** oro egiteko prest egongo da, eta Getxo Moda 2017ko (32. edizioko) **Diseinatzaile Berrien Lehiaketako 14. edizioko bilduma irabazlearen promozioa egiteko irudi-eskubideak erabiltzeko baimena emango du.**

Bozetoak eta bildumak aurkeztea eta itzultzea:

Lehiaketako parte-hartzaileek helbide hauetara bidali behar dituzte lehiaketara aurkezten dituzten bozetoak eta bildumak, eta helbide hauetan ere horiek jaso ahalko dituzte:

E-maila: concursogetxomoda@gmail.com

Posta arrunta: Global Comunicación .

Zugazarte etorbidea, 20 – behekoa. 48930 Getxo, Areta (Bizkaia).

(Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara)

Antolakuntzak lehiaketara aurkeztutako bozeto eta bilduma guztiak izango ditu 2017ko Getxo Moda 32. edizioa amaitu arte.

Lehiaketako parte-hartzaileek ordainduko dituzte bozetoak eta bildumak bidaltzeko/itzultzeko gastuak.

Diseinatzaile Berrien Lehiaketaren 14. ediziora aurkeztutako bozetoak eta bildumak 2017ko maiatzaren 15a baino lehen jaso ahalko dira, garraioa ordainduz gero, eta Global Comunicación enpresan 2017ko Getxo Modaren 32. edizioa egin ostean. Adierazitako epean bozetoak edo bildumak jaso ez badira, egileak jabetza horri uko egiten diola ulertuko da, antolakuntzaren mesedetan; izan ere, azken horrek modu librean erabili ahal izango ditu horiek, egileak inolako erreklamazio eskubiderik baliatu ahal izan gabe.

Antolakuntzak ez du erantzukizunik izango parte-hartzaileek lehiaketan entregatutako materialek jasan dezaketen kalteen gainean (adibidez, garraioaren, manipulazioaren edo antzeko zerbaiten ondorioz).

Parte hartzeko beste baldintza batzuk:

Lehiaketan parte hartzen dutenek antolakuntzari aurkeztutako diseinuak erabiltzeko eskubideak lagatzen dizkiote horiek zabaltzeko; horrela, edozein hedabidetan argitaratu ahal dira, eta eskubidea izango dute 2017ko Getxo Moda 32. edizioan aurreikusten diren beste erakusketa eta ekintza burutzeko.

Lehiaketan parte hartzen dutenek baimena emango dute euren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko Legearen indarreko legeriaren esparru juridikoan tratatzeko; horrez gain, emandako datuak, egiazkoak, zehatzak, osoak eta oraingoak direla bermatzen dute. Betebehar hori ez betetzeagatik eragindako edozein kalteren, zuzena edo zeharkakoa, erantzule izango dira.

2017ko Getxo Modako Diseinatzaile Berrien Lehiaketaren 14. edizioan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Horrez gain, Getxo Enpresak eskubidea izango du oinarri hauetan ezarri ez den beste edozein konturi buruz erabakitzeko, erakunde antolatzailea den aldetik.

2017ko Diseinatzaile Berrien Lehiaketaren 14. Edizioari buruzko informazioa:

T.: 94 653 21 34

@: concursogetxomoda@gmail.com